

KUKAI-TANTTAKA
hnuy ilja
J. Sarrionandia
poesia
KOREOGRAFIA
Jon Maya
MUSIKA
Iñaki Salvador
ZUZENDARITZA
Mireia Gabilondo

hnuy illa…


IZEN ULERTEZINA ETA AHOSKATZEKO EZINEZKO HORREN ATZEAN ALTXOR BAT EZKUTATZEN DA.

HNUY ILLA… HASIERA BESTERIK EZ DA…

Joseba Sarrionandiak 1995. urtean euskal literaturan mugarri izan den poema liburua argitaratu zuen: ‘Hnuy illa nyha majah yahoo’. Bertan, 1985 eta 1995. urteen artean idatzitako olerkiak biltzen ditu. Olerki inspiratzaileak, iradokitzaileak, ameslariak, bidaiariak, iheslariak…



Eta iturri horretatik edan du Kukai Dantza dantzak ikuskizuna sortzeko. Hau da, HNUY ILLA' 'Hnuy illa nyha majah yahoo' liburutik aukeratutako poesiaetan oinarritutako dantza ikuskizuna da.



Ate bat irekitzea bezala da, zerbait berria gerta dadin. Tonu ez izugarri alaiarekin, malenkoniatsuarekin apika… eta pozkorrarekin.


Dantzatik, kantutik, musikatik, irudietatik arnastuko dugu poesia. Sarrionandiak irekitzen digun leihotik begiratuko diogu munduari.

25. urtemuga baliatuko dugu liburuaren eta ikuskizunaren berrargitalpen bat egiteko. Egindakoak jaso, berritu eta publikoaren esku jarri dugu hain kuttun dugun proiektua.

Kukai Dantzak, dantza tradizionalaren eta garaikidearen arteko bizikidetzan, egindako lehenetariko lanaren errebisio gaurkotu bat egingo du. Musika arloan, Sarrionadiaren poesia musika bihurtzen maisu izan da **Mikel Laboa**. Eta Laboarekin batera, haren kide banezina: **Iñaki Salvador**. Haien musika izango da ikuskizunaren soinu bandaren oinarria, Ruper Ordorika eta Maria Berasarte bezalako kolaborazioak bilduta.



Espazio eszenikoa ikuskizun honen elementu bereizgarrietako bat da baita ere. Bi oihalen eta ikus-entzuneko lan berezi batek osatutako espazio eszenikoaren erdian kokatzen da ekintza, unibertso oniriko zein majiko bat eta lau dimentsiotako erralitate bat sortuz. Elementu hauek guztiak, Mireia Gabilondok josi ditu sentsibilitate handiz.



Bidaia onirikoa abian da.
Unibertso poetikoan barneratu gara.
Antzerkia, dantza, literatura, ikus-entzuneazkoak, euskara… zipriztinduta.

FITXA ARTISTIKOA

Poemak: Joseba Sarrionandia
Eszena zuzendaritza: Mireia Gabilondo
Koreografia: Jon Maya Sein
Dantzariak: Alain Maya, Aritz Lopez, Ibon Huarte, Izar Aizpuru, Leire Otamendi, Nerea Vesga, Urko Mitxelena
Musika: Iñaki Salvador
Argiztapen diseinua: Xabier Lozano
Ikus-entzunezkoen diseinua: David Bernués
Jantzien diseinua: Ana Turrillas
Kolaborazio bereziak: Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Maria Berasarte…
Kudeaketa: Elena García, Doltza Oar-Arteta

…nyha majah yahoo